

**Batzar Nagusia**

**2008-IV-3**

---

# **Eusko Alkartasuna**

## **Euskal Herriaren erronka**

### **politiko eta sozialen aurrean**

---



**eusko**  
**alkartasuna**  
euskal sozialdemokrazia

---

# 0

---

## Sarrera

Gure estatutuen 2. artikulua adierazten duenez, “Eusko Alkartasuna alderdi abertzalea, demokratikoa, herrikoia, aurrerakoia eta akonfesionala da, bere teoria eta bere praktika giza eskubideen, justizia sozialaren, bakearen eta nazioen arteko distentsioaren aldeko euskal tradizio demokratikoan eta Europako tradizio aurrerakoian oinarritzen dituena”.

Eusko Alkartasunaren Batzar Nagusia biltzarren arteko organo gorena da eta, ondorioz, hausnarketa eta azterketarako gune nagusia izan behar du.

Orain, alderdi bezala, hausnarketa egiteko, egokitzeko eta berresteko prozesu bat irekitzeko erantzukizuna dagokigu, zuzendaritza nazionalak eta batzarrak berak hartu behar duten ardura, hain zuzen ere.

Aldez aurretik, agiri honek bi zati dituela ohartarazi behar da.

Lehenengoak, esku artean daukazunak, martxoko hauteskundearen emaitzak eta etorkizunari begirako alderdiaren estrategia aztertzen ditu, begiak hurrengo hauteskunde autonomikoetan jarrita.

Bigarren zatiak, hurrengo Batzar Nagusian aurkeztuko dugunak, ardatz izango du Euskadiko Batzorde Eragileko idazkaritza bakoitzaren arduradunen kudeaketa-plana.

Batzar Nagusiak agiria bere osotasunean eztabaidatu eta, hala badagokio, onartuko du ondoren.

---

## **Hauteskundeen emaitzei buruzko analisia**

Iragan martxoaren 9ko hauteskundeen emaitzek hausnarketa sakona egitera behartzen gaituzte. Emaitzak txarrak izan dira euskal eremu nazionalako alderdi guztientzat (EAJ, EA eta Aralar), baita ere hiruko gobernuan dagoen beste taldearentzat, IU-EBrentzat, alegia, eta mapa politiko berri bat utzi digute: PSE-PSOE Hego Euskal Herriko hiru herrialdeetan indar nagusia da, UPN Nafarroan den moduan.

Gogoeta honek, hala ere, modu bereizi batean aztertu behar ditu Iparraldeko emaitzak (kantonalak eta lokalak) eta Nafarroakoak. Izan ere, bai Iparraldean bai Nafarroan indar abertzaleen batasunak emaitza positiboak ahalbidetu ditu, duela lau urte lortutakoak baino hobekak. Nafarroa Baik 1.000 boz inguruko igoera izan du, 61.045etik 62.073ra, eta portzentaian ere igo da, puntu erdia, %17,98tik %18,53ra. Iparraldean, ordea, gorakada orokorra eta handiagoa izan da bai zenbaki errealetan, bai portzentaian.

EAEko hiru herrialdeetan gertatu dena, aldiz, ezberdina izan da. Eusko Alkartasunak babesa galdu du modu esanguratsu batean (2004an baino 30.784 boz gutxiago, behin-behineko datuen arabera). Portzentaian ere bi puntuko jaitsiera izan dugu, %6,48tik %4,49ra, eta honen guztiaren ondorioz orain arte Madrilen izandako ordezkariak galdu dugu.

Hasieran adierazi dugun bezala, egia da jaitsiera orokorra izan dela erradikaletik bereiztearren instituzionala deitzen dugun abertzaletasunean. Zalantzarik gabe, emaitza txarra bakarrik Eusko Alkartasunarena izan balitz eta gainerako talde abertzaleek gora egin balute, analisiak oso ezberdina izan beharko luke, soilik gure alderdian zentratuta.

Edozein modutan, guk ezin dugu aitzakitzat hartu emaitza txar hauek orokorrak izatea, inolaz ere. Askoren gaitza ezin daiteke aitzakia izan hain garrantzitsua den kontu honetan: gure alderdiaren etorkizuna eta nola egin diezaiekegun aurre gure herriaren erronka politiko eta sozialei.

Hau dela-eta, azterketa honek ariketa proposatzaile bat izan nahi du aldi berean. Ezin gaitzke autokritika huts batean geratu, ez dugu hori egin behar; aurrea hartu behar dugu lidergo politikoa berreskuratzeko. Hauxe da gure eginkizuna, alderdian Batzar Nagusia biltzarren arteko organo gorena baita.

## **Eusko Alkartasunaren VII. Biltzarra**

Eusko Alkartasunaren VII. Biltzar Nagusian, duela hiru hilabete Donostian eginikoan, hain zuzen ere, aurreko biltzarretan ematen ari zen joerarekin (zerrenda alternatiboen aurkezpenarekin eta zuzendaritza barruko tirabirekin) apurtzeko gauza izan ginen.

Alderdi politiko guztietan, gizon-emakumeok osaturiko edozein taldetan bezalaxe, sentsibilitate ezberdinak egoten dira eta, honenbestez, barne eztabaida egon behar du. Gu sentsibilitate guztiak bildu eta ordezkatzeko dituen zuzendaritza nazional bat osatzeko gai izan gara.

Egun adostasunaren emaitza, akordioaren emaitza eta barne batasunaren emaitza den zuzendaritza nazionala dugu, eta barne batasun horrek balio behar digu herri bezala ditugun erronka garrantzitsuei aurre egiteko.

## **Zuzendaritza nazional berria**

Euskadiko Batzorde Eragileak Batzar Nagusiari 2008ko urtarrilaren 17an egindako bileran azaldu zion moduan, azken urteotan hauteskunderaz hauteskunde etengabe mantentzen ari zen joera negatiboari buelta ematea zen, hain justu, abenduan aukeratutako zuzendaritza nazionalaren lehenengo helburua.

Egia da zuzendaritza honek bere ibilbideari ekin ziola aurrekanpaina jada abian zegoenean, baina errealitatea da ez dugula guretzat lehentasuna zeukan xede hura bete. Zentzu honetan, egiaztatu behar dugu hauteskunde hauetan gertatu dena ezin zaiola egin dugun hauteskunde-kanpainari bakarrik egotzi eta, antza denez, arazoa egiturazkoagoa dela.

# 4

## Martxoaren 9ko hauteskundeak. Faktoreak

Hauteskunde hauetan bi fenomeno agerian geratu dira:

- 1) Lehenik, iritzi abertzaleetatik urrun dagoen eta hain ideologizaturik ez dagoen gizartearen sektore garrantzitsu baten mobilizazioa. Sektore honek berdin egiten du PSOEn edo PPren alde, unearen arabera, eta orainoan abstentzioa baztertu eta gehiengoak PSOEn ematen dio boza.

Mobilizazio hau azal dezaketen faktoreak ezberdinak dira, eta zaila da jakitea zer nolako eragin zehatza izan duen faktore bakoitzak baina, zalantzarik ez, kanpaina honetako sekulako polarizazioak, aurrekoetan baino askoz nabarmenagoa izan denak, emaitzak ulertzeko laguntzen du.

Kanpaina honetan, PP eta PSOE espainiar alderdi handiek modu interesatuan bultzatu duten presio mediatikoaren eraginez, eta gainerako hautagaiak baztertu dituzten telebistako eztabaidei esker, bakarrik bi aukera –Jose Luis Rodriguez Zapatero ala Mariano Rajoy– zituztelako sentsazioa zabaldu da boto-emaile askoren artean.

Ez du ezertarako balio orain galdetzeak erabakitzeak eskubidearen aldeko alderdien koalizio handi bat osatzeak, Eusko Alkartasunak defendatzen zuen moduan, eta Kanadan Bloke Quebecois-ek egiten duen bezala, polarizazio hori apurtuko zuen. Ekimen hori ezerezean geratzeak ekarri zuen desanimoak eta Eusko Jaurlaritzaren bide-orria aurrera eramateko benetako borondatearen inguruko sinesgarritasun faltak ere eragina izan dute boto-emaile askoren desmobilizazioan.

Zentzu honetan, ETAk Isaias Carrasco Arrasateko PSEko zinegotzi izandakoa hil eta gero piztu zen zirrarak emaitzetan izan ahal izan duen eragin zuzenak ere argia dirudi. Hilketak honek eta terroristen basakeriari aurre egitearren –ETAk eta Batasunaren munduak abstentzioa eskatzen zutela gogoan izan behar da–

biktimaren familiak bozkatzera masiboki joateko logika osoz egin zuen deiak ere eragina izan dute,

- 2)** Edozein kasutan, hausnarketa hauetatik baino haratago, Eusko Alkartasunaren Euskadiko Batzorde Eragilea izugarri kezkatzen du hauteskunde hauetan ere gertatu den beste fenomeno batek. Berria ez den arren, fenomeno hau indarrez agertu da oraingoan. Izan ere, argi eta garbi, aurreko hauteskundeetan normalean alderdi abertzaleen alde, esaterako, Eusko Alkartasunaren alde, egin duten pertsona askok ez dute oraingoan horrela jokatu. Martxoaren 9an ez ziren bozkatzera joan edo PSOERI eman zioten botoa (hobe Zapatero Rajoy baino).

Zailagoa da, jakina, babesaren galtze honen zergaitia azaltzea, baina arrazoi posible batzuk aurki ditzakegu, mezuari dagozkionak, hain zuzen ere. Lehenik eta behin, argi dago, eta azterketa segmentatuek horrela adierazten dute, hirietan eta lehen aldiz bozkatzten duten gazteen artean indarra galtzen ari garela.

Badirudi argi dagoela egungo gazteek ez dutela abertzaletasuna, euskal sentimendu nazionala, sentitzen beren gurasoek sentitzen zuten, eta duten, moduan; hauek, gurasoek, abertzaletasuna bihotz-bihotzean daramate.

Gazteentzat, Francoren diktaduraren jazarpen politikoa zein kulturala pairatu ez duten belaunaldientzat, arazo nazionalaz gain beste kontu batzuk ere existitzen dira eta agian horietan Eusko Alkartasunak ez du behar bezalako arreta jartzen asmatu.

Kontua ez da arazo horien zerrenda bat egitea, norberaren arabera ezberdinak izan daitezkeelako, noski, baina erraza da, hala ere, horietako batzuk aipatzea, besteak beste, etxebizitza duin bat izateko eskubidea, familieek beren zorrari aurre egiteko dituzten zailtasunak, gero eta handiagoak direnak eta hilabete amaierara iristea izugarri zailtzea dakartenak, ekonomiaren ralentizazioa, lan baldintzen prekarizazioa...

Hauexek dira autodeterminazioaren edo independentziaren aldeko aldarrikapenekin konformatzen ez diren pertsonak arduratzen dituzten kezkak eta arazoak. Pertsona hauek, abertzaleak izanik ere, eskatu eta lehentasuna ematen diote beraiek ere bere egiten dituzten aldarrikapen horien alde praktikoari. Jakin



nahi dute zer eragin praktikoa eta nolako hobekuntza zehatzak ekarriko dituen bere eguneroko bizitzan erabakitze eskubidearen aitortzak eta, bigarren, independentziak. Pertsona hauei helarazi behar diegu gure mezua, gizartean eragina izaten jarraitu nahi badugu, are gehiago Eusko Alkartasuna Euskal Sozialdemokrazia dela aldarrikatzen dugunean.

Halaber, arduraz ikusten dugu nola ireki den arrail esanguratsu bat gobernu ardurak ditugun alderdi abertzaleon eta herriko erakunde sindikal eta sozialen artean. Azken urteotan, eta ziurrenik bi aldean akatsengatik, kontua da eremu publikoan gizarte-gatazkak dezente ugartu direla. Gatazkak irekita daude oraindik Osakidetzan eta Hezkuntzan, eta arlo hauek, duten kutsu sozialagatik, oinarrizko termometroa dira iritzi publikoarentzat Administrazioa kudeatzeko alderdiek egiten duten lana neurtzeko eta baloratzeko. Ildo honi jarraituz, logikoa dirudi sektore publikoan atsekabea eta gatazkak egoteak hautestontzietan botoak galtzea ekar dezakeela.

Hausnarketa hauek ondorio batera eramaten gaituzte: ezin dezakegu botoaren fideltasunaz hitz egin. Ez dago lurzoru elektoralik, ez eta boto leiala existitu ere, afiliatuena baino haratago. Ez dugu boza izaten, baizik eta irabazi behar dugu eta horregatik lanari ekin behar diogu jada, denborarik galdu barik.

## **Etorkizuna. Hauteskunde autonomikoak**

Etorkizun hurbilari begira hautestontzietan beste hitzordu bat agertzen zaigu: hauteskunde autonomikoak. Hasiera batean, 2009ko apirilerako daude aurreikusita baina baliteke 2008. urte honetako azken hilabeteetara aurreratzea eta aukera hau ere kontuan hartu behar dugu. Dagoeneko prestatzen hasi behar ditugun hauteskundeak dira hauek. Agiri honek, hain zuzen, Eusko Alkartasunaren estrategia politikoaren ardatzak biltzen ditu garai berri honetarako.

Ondorioz, une honetatik aurrera hurrengo hauteskunde autonomikoetan pentsatuz lan egin behar dugu. Orduan, martxoaren 9 baino lehen inkesta guztiek (CIS, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, etab.) Eusko Alkartasunari iragartzen zioten goranzko joera berreskuratuko dugu, eta lor dezakegulako ziurtasun osoa dugu.

# 6

## Eremu estrategikoak

Alderdiaren estrategiak bi eremu aintzat hartu behar ditu halaberrez: kanpo eta barne eremuak.

### Kanpo eremua

Kanpo eremuaz hitz egiten dugunean komunikazio arloko politikaz ari gara, Eusko Alkartasunak iritzi publikoari igortzen dizkion mezuez eta irudiaz.

Estatuko komunikabide guztien aldetik bonbardaketa etengabea pairatzen dugu mundu abertzalea krisian dagoelako mezu interesatuarekin. Hala eta guztiz ere, Eusko Alkartasunean mezu abertzalea zaharkiturik ez dagoen ziurtasun eta uste osoa dugu, nahiz eta batzuek autonomismoaren hainbat esparrutik ere kontrakoa esaten duten.

### Independentismo modernoa

Abertzaletasunak ideien iturri eta motorra izan behar du berriro ere. Horretarako bere diskurtsoa modernizatu –honek ez du alde batera uztea esan nahi, batzuek nahi duten bezala– eta independentismo moderno eta europar baterantz aurrerapausuak eman behar ditu; alegia, alor ekonomiko, sozial eta ingurunean proposamen zehatzak egiten dituen eta Ongizate Estatua indartzeko egunez egun lan egiten duen independentismo bat.

Ez gaude bakarrik. Modu argi batean independentziantz aurrera egiten ari diren beste herri batzuk ere badaude, eta adibiderik onena Eskozia da. Han, 1934an jaiotz geroztik historia luzea bete duen Scottish National Party (SNP) gurekin senidetuta dagoen alderdiak 2007 arte itxaron behar izan du eskoziarren babesari esker hango Gobernuaren buruan egon ahal izateko. Beste alderdiek SNP marjinala zela esaten zuten baina orain gobernatzen du, tinko doa independentziantz eta 2010. urtean erreferendum bat deitzeko konpromisoa hartu du.

## **Koherentzia eta argitasuna. Akordio baten beharra. Gutxieneko edukiak**

Eusko Alkartasuna, alderdi abertzalea den neurrian, ezin du, eta ez du egingo, bere koherentzia galdu, ez eta independentziaren aldeko bere mezuaren argitasuna ere.

Beraz, Eusko Alkartasunetik alderdi honek, beste batzuekin batera, iragan irailean hartu zuen konpromisoaren aldeko apustua, hiruko Gobernuaren bide-orriaren aldeko apustua, berretsi egiten dugu.

Beharrezkotzat jotzen dugu espainiar Estatuko Gobernuarekin akordio bat lortzea; zehazkiago, zazpi herrialde dituen eta bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duen herri baten existentziaren aitortza, zalantzarik gabe eta modu argi batean, oinarritzat izango duen akordio bat. Bakarrik horrela normalizazioaz hitz egin ahal izango dugu; bakarrik horrela proiektu politiko guztiak, independentzia barne, defendatu ez ezik, garatu eta gauzatu ere ahal izango dira.

Eta modu berean esaten dugu balizko akordio batek ezin izango duela baztertu Eusko Alkartasunarentzat funtsezkoa den gai bat, lurraldetasunari dagokiona, hain zuzen ere. Honen harira, Eusko Alkartasunarentzat ez da onargarria izango egungo Euskal Autonomi Erkidegoaren eta Nafarroaren arteko balizko batasun politiko-administratiboari ateak itxiko dizkion akordio bat.

Bi ezin dira ados jarri batek nahi ez badu; horregatik, herritarrei galdetzearen aldeko apustuari, gure herriko gizon-emakumeei hitza ematearen aldeko apustuari, eusten diogu irmotasunez, horixe gakoetariko bat izango baita espainiar Estatuak inposatu diezagukeen eta aurreikus daitekeen beto amaigabea desblokeatzeko. Gure herriko gizon-emakumeak, askeak eta berdinak, dira hartu behar den bidea erabakitzeko ahalmena izan behar dutenak.

PPk eta PSOEek defendatzen duten espainiar nazionalismo inposatzaileari aurre eginez, guk gizalegezko abertzaletasun demokratikoa aldarrikatzen dugu eta, ildo honi jarraituz, kontsultaren emaitza, dena delakoa, errespetatzeko konpromisoa berretsi egiten dugu, gure gustukoa izan ala ez, eta modu berean errespetu bera exijitzen diegu espainiar alderdi nazionalistei.

## **Ideologikoki sakondu beharra. Nazio eta gizarte eraikuntza**

Abertzaleak gara eta independentziaren aldeko gure mezua argia da oso, baina hau ez da nahikoa. Beharrezkotzat jotzen dugu gure mezuan sakontzea, honek Eusko Alkartasunarentzat funtsezkoa den beste oinarri ideologiko bati, euskal sozialdemokraziari, alegia, argitasunez eta fideltasunez erantzun diezaion, are gehiago euskal gizarteak gero eta ongizate maila altuagoak, gero eta justizia sozial handiagoa, eskatzen dituen une honetan.

Hau dela-eta, Euskadiko Batzorde Eragilean ezinbestekotzat jotzen dugu ideologikoki sakontzea. Behar-beharrezkoa da nazio mailakoak bakarrik ez diren hainbat kontutan alderdiaren mezua indartzea. Eusko Alkartasunak gizartea kezkatzen duten arazoak, herritar guztien egunerokotasunari lotuta daudenak, antzematen jakin behar du, bai eta bakoitzaren gaineko iritzia finkatu ere.

Eusko Alkartasunaren ustez, nazio eraikuntzaren eta gizarte eraikuntzaren artean lotura agerikoa da. Azken 28 urteko historiak zerbait irakatsi baldin badigu, zera da: zenbat eta autogobernu handiago, orduan eta ongizate maila altuago gure herriko gizon-emakumeentzat.

Ondorioz, Eusko Alkartasunak autogobernu handiagoa eskatzen duenean Ongizate Estatua indartzeko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eskatzen duela azaldu behar dugu argi eta garbi.

Halaber, ikusten dugu jendeak ez duela beti behar bezala ezagutzen gure ordezkariak instituzioetan egiten duten lana. Horregatik, Eusko Alkartasunaren lan instituzionalaren berri emateko orduan asmatu behar dugu, eta azaldu lan horri esker Euskadin pentsio txikienek Estatuan kobratzen ez diren osagarriak dituztela, familientzako dirulaguntza handiagoak ditugula edo eskola uztearen tasa txikiagoak ditugula, bakarrik hiru adibide zehatz aipatzeagatik, eta euskal iritzi publikoari helarazi behar dizkiogun beste adibide asko eta asko. Arreta berezia ipini behar dugu kudeaketan, kudeaketa onaren hedapen sozialean.

Horretarako honako neurri hauek proposatzen ditugu:

**1)** Gaien hautaketa eta alderdiaren iritzia finkatzeko prozedura baten ezarpena.

Sozialdemokrazian sakontzeko prozesu horretan aurrera egiteko, gai ezberdinen inguruko alderdiaren iritzia modu proaktibo batean finkatzeko gauza izan behar dugu arazoak agertzen diren heinean, abiaduraz eta eraginkortasunez, eta erabakia jada hartuta dagoenean, erakunde guztietan berdin-berdin defendatu behar dugu, kontraesanetan erori gabe, iritzi publikoaren aurrean koherentzia osoa duen alderdi gisa agertzeko.

Horrela, bat-bateko erantzun bat behar duten arazoak egoten dira eta kasu hauetan prozedura arinagoa izango da; beste gai batzuk aldian-aldian errepikatzen dira eta beste prozesu bat behar dute eta, azkenik, ideologikotzat har ditzakegun kontuak ditugu, tratamendu ezberdin batekin, Batzar Nagusi honen parte-hartze aktiboa behar dutenak erantzuna eztabaidatu eta aprobatzeko.

**2)** Datu eguneratuak eta konparatibak bilduko dituen agiri bat egitea kargu publikoek erabil dezaten.

Idazkari Nagusiak gainbegiraturik, datu eguneratuak eta mezu argi eta laburrak bilduko dituen liburu zuri bat egingo dugu. Alderdikideek eta kargu publikoek informazio hori erabili ahal izango dute eztabaida eta mintzaldi publikoetan zein pribatuetan. Helburua da alderdiko bozeramaileek informazio eguneratu eta zehatza eskura izan dezatela, laguntza bat mezuak argitasunez eta jarraitasunez igorri ahal izateko.

**3)** Etengabeko komunikazio estrategia baten diseinua une honetatik aurrera, hauteskunde-kanpainara arte. Hurrengo hauteskundeak hurbil daudela eta erronka hori prestatzeko denbora gutxi dugula kontuan hartuta, azkeneko kanpainak egin dizkigun komunikazio-agentziarekin harremanetan gaude jada irudi eta komunikazio estrategia bat diseinatzeko.

- 4) Asoziazionismoarekin, batik bat euskal eremu nazionalako sindikatu nagusiekin, harremanak erraztu eta hobetzea.

Eusko Alkartasuna, alderdi politikoa den neurrian, herritarren bizi-kalitatea hobetzea du helburu, eta xede bera dute sindikatuek, elkarteek eta beste erakunde sozial batzuek. Horregatik, ezinbestekoa da gobernu erantzukizunak dituen abertzaletasun instituzionalaren –Eusko Alkartasuna bezala– eta euskal sindikatuen artean ireki den arraila ixtea. Egoeraren inguruko hausnarketa elkarrekin egiteko asmoz, hainbat bilera hitzartu ditugu dagoeneko sindikatu nagusiekin. Gero, gauza bera egingo dugu patronalarekin eta beste elkarte batzuekin.

- 5) Informazioa eta komunikazioa. Webgunea, aldizkaria eta buletin elektronikoa.

Alderdiak Internet-en duen erakusleihoa den webgunearen diseinu berri batean lan egiten ari gara. Helburua bai estetika, bai edukiak hobetzea da. Halaber, aldizkaria ere berdiseinatuko dugu, egitura eta edukiak hobetuko ditugu erakargarriagoa izan dadin.

## **Barne eremua**

Euskadiko Batzorde Eragileak lehentasunezko helburutzat hartu zuen alderdia bere alde guztietan suspertzea, argi dagoelako alderdiak behar bezala funtzionatzen ez badu, zaila izango dela nahi ditugun emaitzak lortzea. Gure egiturak hobetzeko aukera handia du oraindik eta gure oinarri soziala zabaltzeko xedeari begira jarri behar dugu.

Hauteskunde hauetan argi geratu da beste faktore batzuk ere existitzen direla, goi mailako eremuan, hau da, nazio edo lurralde zuzendaritzan, egiten den lanaz gain, edo kanpainaren diseinuaz gain, edo hautagaien eta alderdikideen balioaz edo gaitasunaz gain.

Jaitsiera EAEko herrialde guztietan orokorra izan dela egia bada ere, emaitzei buruzko analisi zehatzago batek agerian uzten du bozen galtzea ez dela berdina izan udalerrri

guztietan; aitzitik, hainbat tokitan aurreko hauteskundeetan baino boto gehiago eskuratu ditugu.

Honek agerian uzten du herri eremuaren eta hauteskunde-emaitzen arteko lotura garrantzitsua, Estatuko hauteskundeetan ere bai, eta, beraz, Euskadiko Batzorde Eragileak ahalegin handiak egin behar ditu hortxe, tokian tokiko batzordeei laguntzeko eta elkarrekin lan egiteko tresnak zehaztuz eta abian jarritz. Ildo honi jarraituz, lehenengo ekimena jadanik martxan dago: herri batzorde bakoitzari galdeketa labur bat bidali zaio hauteskunde emaitzen eta hauen arrazoen inguruko beren iritzia jasotzeko. Antolakuntza Idazkariak jasoko dituen erantzunak aztertu eta aintzat hartuko ditugu etorkizunari begirako jardueran kontuan hartu ahal izateko.

Alderdiaren egitura eta dinamika modernoa, arina, eraginkorra eta berritzailea sustatu nahi dugu, gure afiliatuak eta herri batzordeak motibatuz gauza izango dena; hitz gutxitan esanda, Eusko Alkartasunak euskal gizartearen zerbitzurako egiten duen lana hobetuko duen egitura bat.

Gurea bezalako alderdi bat ezin daiteke egon hauteskunde-kanpainan zehar bakarrik egiten den lanaren menpen. Kanpaina iraunkorraren kontzeptua zabaldu behar da.

Horretarako honako neurri hauek proposatzen dira:

- 1)** Hauteskunde-programaren ildo nagusien prestaketa. Helburua da ildo nagusiak finkatzea hauteskunde-programa herri batzordeekin batera lantzeko eta osatzeko, eta afiliatuen eta militantziaren iritziei arreta osoa ipiniz.

Neurri honek helburu bikoitza dauka: batetik, herri batzordeekiko harremana estutzea; bestetik, Ikasketen eta Programen Idazkaritzak koordinatu beharko duen programaren ildoen prestaketan aurrera egitea.

- 2)** Aplikazio informatiko eraginkor bat abian jartzea afiliazioaren fitxategi bakarra kudeatzeko, kuoten kudeaketa barne.
- 3)** Pertsonen kudeaketarako sistema bateratu baten ezarpena. Bilakaera pertsonala zein profesionala kontuan hartuko du eta lanpostuak, soldata-mailak, formakuntzarako planak, etab. estandarizatuko ditu.



**4)** Sistema baten ezarpena herri batzordeek buletinen edota aldizkarien bitartez Eusko Alkartasunak udalerrri horretarako dituen proiektuen eta ideien berri esparru horretan eman dezaten.

**5)** Sare bat sortzea Eusko Alkartasunak Euskal Herriko gizarte osoan presentzia izan dezan. Lehenik, alderdiarentzat interes berezia duten arlo sozialak identifikatuko ditugu, hala nola sindikatuak, kultur elkarteak, kirol erakundeak, enpresak, korporazioak...

Sektore hauetan guztietan pertsonak (afiliatuak edota militanteak) identifikatu beharko genituzke arlo horretako egoeraren berri eman diezaguten eta, alderantziz, Eusko Alkartasunaren ahotsa bertan zabal dezaten.

**6)** Alderdiaren azpiegitura modernizatzea teknologia berriek ematen dizkiguten aukera guztiak aprobetxatuz.

**7)** Alkartetxeen erregistro bat, gida bat, egitea eta Alkartetxe berrien irekiera sustatzea.

**8)** Kargu publikoen Intranet-a, EAzineta, abian jartzea. Gure kargudunen artean informazioa, irizpideak eta alderdiaren iritzia zabaltzeko balio behar duen tresna da EAzineta, eta aldi berean balio dezake kargudun guztien artean esperientziak elkartrukatzeko.

**9)** Jardunaldiak eta mintegiak antolatzea eta agiriak prestatzea kudeaketa instituzionalari dagozkion hainbat alde eta gairi buruz.

# 7

---

## **Bukaera**

Hauexek dira proposatzen ditugun neurri zehatzak, berehala abian jartzeko konpromisoa hartzen dugularik.

Ziur gaude ekimen hauekin Eusko Alkartasunari inkestek iragartzen zioten goranzko joera berreskuratuko dugula, bai eta hauteskunde-kanpainan zehar guztiok sentitu genuen ilusioa ere.